

Bi
da
iala
gu
na



Zer da Bidaialaguna?

Esku artean duzun aldizkaritxoak euskara sustatzeko helburua dauka. Euskotreneko motibazio lantaldeak sortutako ekintza bat da, eta lau hilean behin argitaratzeko asmoa dago.

Aldizkaritxo honek euskarari eta euskara planari lotutako berriak eskaintzeko asmoa dauka. Paperean euskara hutsean banatuko da, eta Begiran gaztelaniazko bertsioa ere jarriko da.

Aldizkaritxo honen izena “Bidaialaguna” izango da, baina izenarekin batera logo bat jartzea interesgarria izan daitekeela pentsatu dugu. Animatzen zara logo bat bidaltzen? Horretarako, bidali zure proposamenak, gaiak eta iradokizunak helbide honetara:

jbarrena@euskotren.eus

Berbetan



Jose Ignacio Perezekin

Lehen zenbaki honetan gure lankidea den Jose Ignacio Perez Martin elkarrizketatu dugu.

Zein izan da euskararekin izan duzun harremana?

Ni Valladolidekoa naiz eta 17 urte ingururekin etorri nintzen hona. Azkoitira etorri ginen eta nahiko zaila egin zitzaidan hiri batetik herri batera etortzea eta beste hizkuntza eta kultura batean murgiltzea. Familiarekin gaztelaniaz egiten nuen eta institutuan salbuetsita nengoen euskara ikastetik, baina poliki-poliki, nire kabuz, euskara ikasten joan nintzen, hasieran kalean, batez ere, eta euskaltegian, ondoren. Garai hartako errealitatea zaila zen, institutuko tabernan, adibidez, mahai batean esertzen ziren euskaldunak eta beste batean erdaldunak, ez zegoen harremanik euren artean. Gogorra zen. Azkoitian 30 bat urte egin ondoren, Errioxan bizi naiz orain, Haron. Familian bietara egiten dugu, batzuetan euskaraz eta beste batzuetan gaztelaniaz.

Zenbat denbora daramazu euskara ikasten?

Aurreko ikasturtean, 8 hilabetez egon nintzen liberatuta euskara ikasteko eta izugarritzko aurrerapena egin dut, bai hitz egiten eta baita idazten ere. Oso eskertuta nago izan dudana aukerarengatik. Aurretik, nire kabuz ibiltzen nintzen, baina ez zen erraza. Bi udaratan joan nintzen barnetegira, nire aldetik, baina oraingoan sumatu dut benetako aldaketa. Gainera, hango errealitatea dena izanda, ez zen euskara ikasteko talde askorik sortzen Azkoitian!

Zein zen zure helburua liberazioa eskatu zenuenean?

Nire helburua B2 mailara heltzea zen eta lortu dut. Zornotzako barnetegian egin dut maila egiaztatzeko proba.

Zer ekarri dizu euskara ikasteak? Zer azpimarratuko zenuke?

Euskal kultura ulertzeko beste modu bat eman dit, sakonagoa. Komunikazio erreminta mundiala da euskara eta bertako gizartean hobeto integratzeko aukera eman dit. Horretaz gain, oso garrantzitsua da niretzat bezeroei euren hizkuntzan eskaini ahal izatea zerbitzua.

Badaukazu lanean euskaraz aritzeko aukerarik?

9 urte pasa daramat Euskotrenen eta Gasteizko tranbian ari naiz orain. Hemen gutxiago egiten da, baina euskaraz hitz egiten didaten lankideekin euskaraz moldatzen naiz ohiko elkarrizketetan. Aurretik Elgoibarren aritu nintzen, autobusean, eta, han bai, han egun osoa pasatzen nuen euskaraz murgilduta, lankideekin zein bezeroekin.

Zer esango zenieke zure lankideei euskara ikastera animatu daitezen?

Ikasten ari zarenean, etsita egoten zara batzuetan, baina, hala ere, merezi du saiatzea, ahalegina egitea. Garrantzitsuena, nire ustez, ez da ziurtagiria lortzea, euskara komunikatzeko erreminta bat da eta, beraz, euskaraz hitz egin ahal izatea da garrantzitsuena. Bezeroekin euskaraz hitz egitea da mamia niretzat.

Ba al dakizu?



6

lankide liberatu dira euskara ikasteko 2024-25 ikasturteko lehenengo txandan.



%29

gara emakumeak Euskotreneko plantillan

Euskara hobetzen

*Ake ..., *Si ..., *Asike ..., *Jake..., *Eske...

Gaztelaniatik hartutako esapide hauek asko zabaldu dira euskaldunon artean. Saiatuko gara saihesten.

- » Ake bai asmatu! Baietz asmatu!
- » Eske gurekin gustura dabilta. Gurekin gustura dabilta eta.
- » Ez dakizu, asike isildu. Ez dakizu, eta isildu! Ez dakizu; beraz, isildu!
- » Jesartzeko? Si jesarrita nago! Beti niri esan behar didazu? Jesartzeko? Jesarrita nago eta! Beti niri esan behar didazu?
- » Aber noiz egoten garen elkarrekin! Ea noiz egoten garen elkarrekin!

Ariketak egiteko, sakatu [HEMEN](#)
Azalpenak nahi badituzu gai honi buruz, sakatu [HEMEN](#)

Hartzea ematea DA!

Horixe izango da aurtengo Durangoko Azokaren lema. Azokaren 59. edizioa izango den hau abenduaren 5etik 8ra egingo da.

“Irakurtzea bestela idaztea den bezala, entzutea kantatzea da, ikustea antzetztea, aditzea pentsatzea, eta Durangoko Azokan egotea euskal kulturaren alde egitea da”, esan du aurkezpenean azokako koordinatzaile den Beñat Gaztelurrutiak.



Zure intereserako



Itzuli itzultzaile eleanitz automatikoa da, eta webgune baten bidez edo mugikorreko app baten bidez erabili daiteke. Eusko Jaurlaritzak 2019an plazaratu zuen.

4 hizkuntza hauekin egiten du lan: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa.

Itzultzaile neuronalek euskarazko erabilera areagotzeko aukera aparta ematen digute. Izan ere, euskara hutsean sortu eta itzultzailearen bidez beste hizkuntza batera itzuli dezakegu, batetik. Eta, bestetik, euskaraz ulertzen ez duenari ere euskaraz jasotako testuak bere hizkuntzara itzultzeko aukera ematen dio, ulermena bermatuta horrela.

Irakurritakoak

Ortozik

Gure amama Mariajesus zena goizean goizetik jaikitzen zen San Joan egunez eta oin-ortozik ibiltzen etxe inguruko zelaietan, ihintzetan. Iratzea batzen zuen gero: sortatxo bat atartean eskegitzeko eta beste bat gordetzeko (hurrengo urtean auzoko San Joan sua pizteko). Artean ume-umea nintzen ni eta erritual haren mistikak baino, amamaren oinak ikusi ahal izateak erakartzen ninduen gehiago; ez lamia bat izan zitekeela uste nuelako, ezpada negu zein uda galtzerdi eta mahuka luzedun amantalak janzen zituen, haren gorputz-atalen bat erdi biluzik ikusteko aukera bakarra izaten zelako hura.

Miren Amuriza. Berria

Letra-zopa

Aurkitu trengintzarekin lotutako 10 hitz hauek:

S	G	L	L	O	L	G	H	M	J	H	L	M	J	E
Q	F	F	C	I	A	V	P	N	S	Z	A	V	K	C
P	P	Q	A	R	E	T	S	I	Z	L	L	V	H	G
R	Q	R	A	E	S	F	D	K	D	I	E	N	M	S
Z	R	B	A	G	Q	E	E	I	H	Ñ	D	R	Ñ	X
E	I	O	A	B	L	J	R	N	W	G	I	Ñ	X	D
D	O	M	G	L	C	I	R	A	A	Ñ	B	O	V	J
O	U	R	D	M	A	T	X	U	R	A	S	S	S	C
O	G	Q	R	K	V	Z	M	G	A	K	E	E	Z	Ñ
M	Ñ	S	D	A	T	I	T	L	W	T	H	I	E	Q
S	E	O	Z	Q	T	J	N	A	W	Q	I	N	M	E
J	H	Y	H	I	O	Z	Q	Ñ	F	O	A	A	Z	C
W	Ñ	H	E	W	B	Y	W	K	Ñ	J	S	L	E	A
Z	P	I	N	U	S	A	T	Z	I	A	M	E	X	T
Y	R	Q	A	Z	I	L	A	B	U	G	O	Z	L	D

aldiriak

balazta

baliza

errail

garabi

maiztasun

matxura

orratz

saihesbide

seinale



euskotren



+ INFO
APP EUSKOTREN
www.euskotren.eus